



HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langilearen Kudeaketa Zuzendaritza

Hezkuntza Saileko Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen Mahai Negoziatzailea

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO LAN-LEGEPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEEN HITZARMEN KOLEKTIBOARI BURUZKO AKORDIOA

Lakua, 2026ko maiatzaren 08.

Gaurko Mahai Negoziatzailean bildutako ordezkariak akordio hau sinatu dute, eta aipatutako bileraren aktaren eranskin gisa jaso da.

Akordioaren oinarria:

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektibo berria argitaratu ondoren, arazoak ikusi dira III. eranskinaren idazketan, eta zenbait aldaketa egin behar zaizkio, puntu ilun batzuk argitzeko, zehaztugabetasunak zuzentzeko eta Ordezkagunearen kudeaketa hobetzeko, hezkuntza-sistema publikoaren eskaerei kalitatez eta eraginkortasunez erantzungo dien ordezkapen-zerbitzu bat eskaintzeko balio dezan.

Beraz, III. eranskina aldatzea **ADOSTEN** da, honela idatzita:

Eranskin hau 2026ko irailak 1ean indarrean sartuko da eta 2024ko abenduaren 19an sinatu zen lan hitzarmenaren aurreakordioaren III. Eranskina ordezkatu du. Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak kudeatzen dituzte, ikasturtean zehar ikastetxe publikoetan hezkuntza bereziko lan-legepeko hezitzaileen aldi baterako beharrak betetzen joateko. Araudi horren planteamendu orokorrak irizpide hauek hartzen ditu kontuan:

- Hezkuntza-sistema publikoaren eskaerei kalitatez eta eraginkortasunez erantzungo dien ordezkapen-zerbitzu bat eskaintzea.
- Ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda bakarrak eratzea -kategorien arabera-, eremu pertsonalaren atalean aipatutako kolektiboez osatua.
- Ordezkogaien lehentasun-ordena ezartzea.
- Ordezkogaien prozedimendu zehatzak arautzea.

Araudi honen bidez, alde batetik, alderdi hauei buruzko elementuak zehaztu nahi dira: eremu pertsonala, sartzeko baldintza orokorrak, baremazio-irizpideak, prestatzeko prozedurak eta funtzionamendu-baldintza orokorrak, eta, bestetik, ordezkapenatarako izangaien zerrenda horren kudeaketa eraginkorragoa, bateratuagoa eta operatiboagoa erraztu nahi da.

Langile-eremua

Irakasleak
Hezkuntza

MAHAI NEGOTZIATZAILEAN
BILATU

UJOT
Zerbitzu Zerbitzuak

HEZKUNTZA SAILEKO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILEKO
DEPARTAMENTU BURUORDETZA

MAHAI NEGOTZIATZAILEAN
BILATU

DEPARTAMENTU BURUORDETZA
HEZKUNTZA SAILEKO
GOBIERNO VASCO
EREMU PERTSONALAREN
KUDEAKETA ZUZENDARITZA

Araudi hau Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileei aplikatuko zaie. Hezkuntza-laguntzako espezialisten, fisioterapeuten, okupazio terapeuten, gizarte langileen, transkribatzaileen eta materialaren egokitzaileen eta zeinu-hizkuntzako interpreteen zerrendak egingo dira.

Zerrendan sartzeko baldintza orokorrak

1.- Titulazio akademikoa:

Ikusi IV. Eranskina

2. – Euskarako titulazioa:

C1 hizkuntza-eskakizuna izatea. Zerrendetan sartzeko C1 hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa izango bada ere, egun zerrendetan dauden eta HLEA egiaztatuta duten langileek zerrendetan jarraitu ahal izango dute.

Hizkuntza-eskakizunaren pareko hizkuntza-ziurtagiriren bat izatea. Euskarako titulazioa fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko da. Hauek dira baliokidetasunak: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/he_baliokidetzak/eu_def/images/BALIOKIDETZA_taula_2017.jpg

Gaur egun zerrendetan dauden baina hizkuntza-eskakizuna ez duten langileek ordezkapenak egin ahal izango dituzte derrigortasun geroratuko lanpostuetan. Hala ere, 2030eko abuztuaren 31ra arte izango dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Horrela egin ezean, kategoriako zerrenda guztietatik kanpo utziko dira, hau da, hiru lurraldeetako zerrendetatik kanpo, bai lanaldi osoei dagokienez, bai lanaldi partzialei dagokienez hizkuntza eskakizuna egiztatu arte. Salbuetsita egongo dira 55 urte baino gehiagoko ordezkogaiak, betiere 10 urtez zerbitzuak egin badituzte.

Aipatutako bi baldintzak (titulazio akademikoa eta euskarako titulazioa) nahitaez bete beharrekoak izango dira ordezkapen-zerrendetan sartu nahi duten hautagaienentzat. Gaur egun zerrendetan dauden baina hizkuntza-eskakizuna ez duten langileek ordezkapenak egin ahal izango dituzte derrigortasun geroratuko lanpostuetan.

3. Beste betekizun batzuk:

3.1- Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren 13.5 artikuluan eskatzen den betekizunari buruzko ziurtagiri negatiboa, adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbideetan, ofizioetan eta jardueretan sartzeko eta jarduteko, edo Administrazioari baimena ematea Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.

3.2.- Aurrekoaz gain, fisioterapeutak elkargokide izan beharko dira.

Baremazio-irizpideak

Lan-esperientzia.

1- Hezkuntza Sailaren mendeko Hezkuntza Bereziko lan-legepeko kidegoetan EAEko Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak:



Irakaskuntza

Puntu 1 zerbitzuan egindako hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe.

2- Beste zentro publiko edo pribatu baimendu batzuetan emandako zerbitzuak: 0,5 puntu, zerbitzu-hilabete bakoitzeko, puntuazio-mugarik gabe. Atal honetan Hezkuntza Bereziaren eremuan emandako zerbitzuak bakarrik hartzen dira kontuan.

Dagoeneko zerrendetan dauden hautagaiek ez dute eskatu beharko Autonomia Erkidego honetako ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak eguneratzeko, ofizioz egingo baitu Administrazioak.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuak lanaldi osoan emandakoen puntuazio berarekin barematuko dira.

Ez dira Hezkuntza Sailarentzat egindako zerbitzu gisa barematuko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak, baldin eta zerbitzu horiek Hezkuntza Saitetik kanpoko erakundeekin kontratupean eman badira.

Zerbitzu konputagarriak kasu bakoitzean emandako zerbitzuak izango dira, zerrenda bakoitzari dagokion kategoriarekin.

"Babestutako egoeran" dauden hautagaiei, berbaremazio prozesuan, emandako zerbitzuetan onartuko zaie ordezkoen zerrendan aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean bere maila berean dauden ordezkoen batezbesteko puntuazioa. Hurrengo mailak hartuko dira kontuan:

- 0 puntutik 10 puntura
- 11 puntutik 20 puntura
- 21 puntutik 30 puntura
- 31 puntutik 40 puntura
- 41 puntutik 50 puntura
- ...

"Babestutako egoera" behin ikasturtea hastean gertatzen baldin bada, egoera horretan egon den denborari dagozkion puntuak emango zaizkio proportzionalki, beti ere hilabete osoak kontuan hartuz.

Lan-esperientzia justifikatzeko dokumentazioa

1- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioiko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak ofizioz barematuko dira.

2.1 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste Hezkuntza administrazioiko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatze, izendapenaren edo kontratuaren eta lanpostu-uztea aurkeztu behar dira, edo, bestela, dagokion hezkuntza-administrazioaren organo eskudunak ziurtatutako zerbitzu-orria.

Europar Batasuneko estatuetako ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatze, beharrezkoa izango da, gainera, dagokion Hezkuntza administrazioaren agiria aurkeztea —zinpeko itzulpen eta guzti—, ikastetxea publikoa dela.

2.2- Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak egiaztatze, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Ikastetxeko Zuzendaritzak egindako ziurtagiria, Ikuskaritzak ontzat emana, zerbitzuaren iraupena eta heziketa bereziko zein kolektiboetan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua.



Irakaskuntza

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, ikastetxearen (enpresaren) izena eta alta-aldiak jasotzen dituena. Europar Batasuneko estatuetako ikastetxe pribatuetan eta Europar Batasuneko estatuetatik kanpoko ikastetxe pribatuetan eta publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko herrialdeetako Hezkuntza administrazioek edo organo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira —zinpeko itzulpen eta guzti—, non berariaz jaso beharko baitira zerbitzuak ematen egondako denbora, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua, aipatutako informazioa zehazten duena.

Seaskako lan esperientziaren kasuan ez da itzulpenik behar euskaraz baldin badago.

Zerrendak egiteko prozedura eta baldintzak.

Ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak birbaremazio prozesuaren ondorioz ikasturtero eguneratuko dira eta langile eremuan aipatutako kolektiboek osatuak izango dira.

Azken ikasturtean zehar edo azkenengo 4 ikasturteetan Hezkuntza Saileko irakaskuntza zentro publiko ez unibertsitarioetan (edo laguntza zerbitzuetan) lan egin duten langileen kasuan urtero zerbitzuak automatikoki barematuko dira. Gainontzeko ordezkogaiek zerbitzuak barematzeko eskaera egin beharko dute.

Zerrenda guztiak irekita mantenduko dira.

Zerrendetan izena emateko informazioa www.hezkuntza.eus web-orrian eta hezigunean egongo da eskuragarri.

Eskaerak eskabide bakarrean egingo dira eskatzaile bakoitzeko, deialdiak ezartzen duen moduan. Hala, paperean edo formatu elektronikoa aurkezteko aukera ezarri ahal izango da, edo formatu elektronikoa bakarrik aurkezteko aukera, betiere, azken kasu horretan, interesdunen eskura jartzen badira horretarako behar diren bitartekoak.

Era berean, eskatzen diren betekizunen eta merezimenduen frogagiri guztiak aurkeztuko dituzte. Meritu horiek urteko birbaremazio-prozedura honetan barematuko dira:

Zerrenda osatzen duten pertsonak birbaremazio-prozesuetan barematuko dira, aurkeztutako merezimenduen arabera, eta lortutako puntuazioaren arabera dagokien lekuan sartuko dira zerrendetan. Puntuazioan berdinketa dagoen kasuetan lan egindako egunak kontuan hartuko dira zerrendaren ordena zehazteko. Lan egindako egunetan ere berdinketa egonez gero, alfabetikoki ordenatuko dira, abizenen eta izenaren arabera, urtero egiten den eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpen bidez argitaratzen den letraren zozketatik ateratzen den letratik hasita, dagokion ikasturtean hautagaiak kudeatzeko prozesuan ordena alfabetikoa zehazteko, bai eta ikasturtean zehar dei daitekeen beste edozein hautaketaprozesutan ere. Berdinketarik gertatuz gero, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia hartuko da kontuan, txikienetik handienera. Birbaremazio prozesutik kanpo gelditu diren izangaiak sarrera-ordenaren arabera onartuko dira eskaerak, eta aurkezpen-dataren eta -orduaren arabera ordenatuko dira, ikasturtean zehar dauden ordezkapen-premiei erantzuteko.

Birbaremazio aldia Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenak zehaztuko du. Aurreko ikasturteko abuztuaren 31 izango da prozesuan sartzeko azken eguna. Hautagaiak "Lanerako prest" edo "Ez lanerako prest" daudela adierazi ahal izango dute eta bien artean aldatzeko aukera izango dute inolako justifikaziorik gabe.



Lanerako prest dauden hautagaiak nahitaezko esleipen bati behin uko egiteko aukera izango dute ikasturtean zehar eta bigarren alditik aurrera ondorio bezala urte batez Ordezkgunean parte hartzeko aukera galduko dute, nahiz eta izangaia zerrendetan mantenduko den. Penalizazio egoera horretan dauden hautagaiak ezin izango dute ikasturte hasierako esleipenetan edo Ordezkgunean parte hartu egoera hori hasi eta urtebetera arte.

Zerrendetan izena lehen aldiz ematen denean, ez zaudela lanerako prest adierazteko aukera egongo da.

Zerrendetan izena eman duen izangaiari sms bidez mezu bat bidaliko zaio ordezkgunean parte hartzeko aukera zabaltzen zaion egunaren bezperan.

Urtero, birbaremazioarekin batera, zerrendetan aldaketak egiteko aukera emango zaie hautagaiari, dagokion eskabidea behar bezala dokumentatuta. Horrela, lurralde batean edo gehiagotan lanaldi partzialean edo osoan eta bere ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dagoen lanpostua hartu edo ez ezartzeko aukera izango du nahitaezko esleipenetan irizpide hauek kontuan har daitezten.

Ikasturte hasierako esleipenetan ez da nahitaezko esleipenik egingo.

Ordezkapenatarako hautagaien zerrenden funtzionamendua

1. – Funtzionamendu orokorra.

1.1.- Ikasturte hasierako esleipena

Ikasturte bakoitzean eta ikasturtea hasi baino lehen, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du lanpostuak esleitzeko prozedura abiarazteko, eskola-ikasturtea hasieran jasotako kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnekin bete beharreko lanpostuak esleitze aldera. Ebazpenak eskabideak aurkezteko epea finkatuko du, eta eranskinean adjudikatu beharreko lanpostuak jasoko ditu, alegia, titularrek bete ez dituztenak eta hutsik daudenak.

Prozeduran parte hartzeko, dagokion kategorian profesionalen ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan "Lanerako prest" edo "Babestutako egoeran" egotea beharrezkoa izango da. Ikasturte hasierako esleipenerako prozeduran "Lanerako prest" edo "Babestutako egoeran" dauden hautagaiak "IKHAN parte hartu nahi dut" egoerara pasatuko dira ofizioz. Hala ere, prozedura hasi aurretik "IKHAN ez dut parte hartu nahi" egoerara aldatzeko aukera izango dute inongo justifikazio beharrik gabe. Aldaketa hauek ikasturte hasierako esleipenatarako bakarrik izango dute eragina.

Izangaiak "Babestutako egoeran" baldin badaude, lanpostua hautatzeko aukera izango dute ikasturte-hasierako esleipen-prozedura honetan "IKHAN parte hartu nahi dut" egoerara pasatuko baitira ofizioz, Behin lanpostua esleitzen zaienean, "Babestutako egoeran" dauden denbora baremorako kontuan hartuko da baina zerbitzu horiek ez dute eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman. "Babestutako egoeran" dauden hautagaiari lanpostua esleitzen bazaie ikasturtean zehar hasi ahalko dira lanean IKHAN esleitu zaien lanpostu horretan, behin egoera hori sortu duen gertakaria amaitzen denean.

Irakasgaitza

Deitutako postuak betetzeko horien hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. Lanpostuen esleipena erreferentziako ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden hurrenkeraren arabera egingo da. Pertsona bakoitzari bere eskabidea osatzen dutenetatik lehenengo lanpostu libre eta balioduna esleituko zaio.

Hizkuntza-eskakizun egiaztaturik ez duten pertsonen 1. hizkuntza-eskakizuneko edo derrigortasun-datarik gabeko lanpostuak eskuratuko dituzte bakarrik.

Esleitutako lanpostuak betetzeari ezin zaio ukorik egin, irakasleen ordezkogaien kasuan zein Haurreskolak Patzuergoko kasuan lanposturen bat esleituz gero izan ezik.

Horretaz gain, uko egiteko aukera izango da horretarako baimenduta dauden arrazoiren bat gertatzen bada edo lizentzia eta baimenetan jasotako kasuren bat gertatzen denean, baldin eta kausa hori aurreikusi ezin diren egoeren ondoriozkoa bada eta eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arteko denborartean gertatzen bada. Honako hauek dira baimenduta dauden arrazoiak:

- a. Askatasunaz gabetzea, kondena-epaia eman arte.
- b. Hezkuntza Sailak edo IVAPek antolatutako ikastaroetan parte hartzea.
- c. Edozein motatako ikasketak edo praktikak egiten aritzea.
- d. Kontratazio baten bidez zerbitzuak ematen aritzea edo Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda egotea.
- e. Kargu publikoren bat izendatu edo hautatzeagatik lanera joatea eragozten dien nahitaezko eszedentzia deklaratuak dakarren kasuren batean egotea.
- g. Administrazio batean izendapena izatea.
- i. Haurdunaldiko seigarren hilabetetik erditu artera arteko epean baldian badago hautagaia.
- j. Genero-indarkeriaren biktima izatearen ondoriozko arrazoiak.
- m. Atzerrian lanean jardutea, GKE baterako.

Kasu hauetan ikasturte hasierako esleipenari uko egin ahalko zaio eta hautagaiak ordezkapenen zerrendan jarraituko du ordura arte zuen lan egoera berean.

Ikasturte hasierako esleipenetan ez da nahitaezko esleipenik egingo.

IKHAN parte hartzen dutenek, borondatez edozein lurralde eta edozein lanaldiko plazentzako eskaera egin dezakete eta ez zaie inolaz ere derrigorrean lanpostu bat esleituko. Eskaintako lanpostuak honako kontratu mota hauek betetzeko izango dira: lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua, urte sabatikoa hartzeko ikasturte osoko ordezkapen-kontratuak eta liberazio sindikaleko ordezkapen-kontratuak (horien iraupena ikasturte osokoa izango dela aurreikusten da, aurretik lanpostuaren titularraren liberazioa amaitzen ez bada). Kontratu-modalitatea eskaintako lanpostuaren ezaugarrien artean egongo da, eskaintako lanpostuen behin betiko zerrendan.

Kontratua sinadura digitalaren bidez jaso eta sinatuko da, Hezigunea plataformaren bidez. Kontratua formalizatzen den egunean, hautagaiek ziurtagiri negatiboa egiaztatu behar dute, Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren 13.5 artikuluan eskatzen den betekizunari buruzkoa, adingabeekin ohiko harremana izatea eskatzen duten lanbideetan, ofizioetan eta jardueretan sartzeko eta aritzeko, edo Administrazioari baimena eman behar diote Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko.

1.2. Ordezkaguneko eskaintzak

Rebekaferraz
2015/10/15

JUST
Zerbitzu Publikoak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZA



Ikasturtean zehar, hezitzaileen plaza bat bete behar denean, Ordeztagunea aplikazioaren bidez eskainiko da lanpostua esleitua izan arte Oro har, kontratua hasi aurreko laneguneko 12:30ak arte ikastetxeko zuzendaritzek jakinarazitako ordezkapen guztiak sartuko dira Ordeztagunean. Aplikazio horrek kategoria bakoitzeko hautagaien zerrenda-ordena hartuko du kontuan, eta honako esleipen mota hauen arabera esleituko da plaza:

1) Borondatezko esleipena: lanpostua borondatez eskatu duen eta zerrendetan hobekien kokatuta dagoen hautagaiari esleituko zaio plaza.

2) Nahitaezko esleipena: hautagairik ez badago eskaintako lanposturen bat eskatu duena edo horietako bat ezin izan bazaio eskatzaileari esleitu eskatutako baldintzak betetzen ez dituelako, nahitaez esleituko da plaza, zerrendetan lanerako prest egoeran daudenetik egoera okerrean dagoenetik hasita, betiere lanaldiei eta lurraldeei dagokienez dituen lehentasunak errespetatuz eta bere bizilekutik 50 km baino gehiagora dauden lanaldi partzialei uko egiteko edo ez egiteko aukera errespetatuz.

Bi esleipen-motetan, hautagaiak lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna betetzen duela egiaztatuko da.

Hautagai bat irakasleen zerrendetan eta hezitzaileen zerrendetan okarren kokatzen dena bada eta plaza bat nahitaez esleitu behar bada, hautagaiak berak ezarritako lehentasunaren arabera esleituko zaio

Era berean, hautagai bat hezitzaileen zerrenda batean edo gehiagotan kokapen okerrean duen pertsona bada, hautagaiak berak adierazitako lehentasunaren arabera esleituko da plaza.

Ez dira nahitaez esleituko ospitaleko, etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutikohezigarrirako lurralde zentroetako plazak eta ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazak, baldin eta aukera hori egin badute. Aukera hori komuna izango da hautagaia barneratuta dagoen hezitzaileen zerrenda guztietarako. Ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialak nahi dituzten ala ez erabakitzeke aukera hori ikasturtean zehar aldatu ahal izango da.

Hautagaiak egin beharreko izapideak:

Hautagaia Ordeztagunen sartzan den lehen aldian, nahitaez baliozkotu beharko du bere ohiko bizilekua, eta telefono mugikor bat eta posta elektronikoa bat izan beharko ditu. Gainera nahitaezko esleipenetan kontuan izan beharko diren irizpideak ezarri beharko ditu: ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazei uko egitea edo ez, lurraldea eta jardunaldi mota. Baliozkotze hori gabe, ezingo du eskabiderik egin. Hautagaiak bere lan-egoera aldatu ahal izango du Ordeztagunen, 9:30etatik 13:00etara:

-Hautagaia indarrean dagoen kontratu batekin lanean badago:

Hautagaiak kontratu bat indarrean badu, baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela eta Ordeztagunen parte hartu nahi duela, hurrengo egunean lan egiteko moduan egongo baita, bere lan-egoera lanerako prest izatera aldatu ahal izango du.

Aitzitik, hautagaiak kontratu bat indarrean badu baina jakin badaki bere kontratua egun horretan bertan amaitzen dela, eta alegatu nahi badu "babestutako egoera" duela edo "ez lanerako prest" egoerara pasatu nahi badu, ezein lanposturen esleipendun ez izateko, bere lan-egoera "Ez lanerako prest" egoerara aldatu ahal izango du,

eta "babestutako egoerara" pasatzeko aplikazioan dagokion eskaera-orria bete beharko du eta egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du bost egun balioduneko epean;

- Hautagaia "lan egiteko prest" egoeran badago:

1. Hautagaia "lanerako prest" egoeran dago eta "ez lanerako prest" egoerara aldatu ahal izango du inongo justifikaziorik eman gabe.
2. Hautagaia lan egiteko moduan badago eta inolako plazaren esleipendun ez izateko babestutako egoera duela alegatu nahi badu, bere lan-egoera aldatzeko aplikazioan eskaera-orria bete beharko du eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du. Kasu horietan, eta salbuespen gisa, babestutako egoeraren arrazoia 13:00ak baino geroago gertatzen bada eta hautagaiari plaza bat esleitzen bazaio, uko egin ahal izango du, hori behar bezala justifikatuz gero (13:00ak baino geroago gertatu dela) eta arrazoia hitzarmen honetan ezarritako babestutako egoera baimentzen duten gertakarien artean sartzen bada. Salbuespen kasu hauetan hautagaia "Babestutako egoerara" pasatuko da egoera horretan egotea baimentzen dion arrazoia bukatu arte eta uko egiteak ez du penalizaziorik eragingo.

- Hautagaia babestutako lan-egoeran edo "ez lanerako prest" egoeran badago:

Hautagaia babestutako lan-egoeran edo "ez lanerako prest" egoeran badago eta lan egiteko prest egoerara igaro nahi badu, bere lan-egoera aldatu ahal izango du.

Ordeztagunen plazen eskaera

27/28 ikasturteko birbaremazio prozesuan ordezkogaiak nahitaezko esleipenetan kontuan izan beharko diren irizpideak ezarri beharko dituzte: ohiko bizilekutik 50 km baino urrunago dauden lanaldi partzialeko plazei uko egitea edo ez, lurraldea eta jardunaldi mota. Birbaremazio hau 2026ko azaroan egingo da eta bertan ezarritako irizpideak 2027ko irailaren 1ean hasiko dira kontuan hartzen. Behin sistema hau martxan jartzean ordezkogaiak edozein lanpostu aukeratzeko gaitasuna izango du eta nahitaezko esleipenetan, berak ezarritako irizpideak jarraituko dira.

Hortaz, 2026/2027 ikasturtean, ordezkaguneko plazen eskaera eta esleipena 2026/2027 ikasturterako egindako birbaremazioan ezarritako lehentasunen arabera egin beharko da, hau da, ordezkogaiak oraindik ezingo du edozein plaza eskatu; solik berak azken birbaremazioan ezarritako lehentasunen arabera.

Hautagaiak eskaera telematikoa egin beharko dute aplikaziora sartuz eta bere lehentasunak, oro har, 13:30etik 15:30era bitarteko artean aurkeztuz, eta ikastetxeak bermatuko die bi ordu horietan jarraian jantokia egiten duten langileei eskaera egin ahal izatea, baldin eta egun horretan bertan kontratua amaitzen badute Hezkuntza Laguntzako espezialistaren kategorian. Hautagaiak eskaintzen den edozein lanpostu eskatzeko aukera izango du.

Halaber, hautagaien ardura izango da, oro har, 15:35etik aurrera argitaratzen den lanpostuen esleipena ezagutzeko aplikaziora egunero sartzea.

Hezitzaileen zerrenda batean baino gehiagotan egonez gero, espezifikotasunak:



Hezkuntza Bereziko kategoría bakoitzeko lan-egoera desberdina izan daiteke.

Eskaintzan kategoría desberdinetako plazak tartekatuko dira. Hala ere, Ordezkaguneren esleipen bakoitzean, hautagaiari plaza bakarra esleitu ahal izango zaio.

Hautagaiari hezitzaileen kategoría batean lanpostu bat esleitu bazaio (eta, ondorioz, kategoría horretan lanean ari bada), baina beste kategoría bateko lanpostu bat lortu nahi badu, Ordezkaguneren parte hartu ahal izango du borondatez, lanpostu bat lortzeko. Uko horregatik ez da ondorioz aplikatuko.

Esleipena egin eta hurrengo egunean lanpostu berrira joan beharko du lanera, eta ordura arte lan egiten zuen ikastetxeari edo lan-zentroari jakinarazi beharko dio amaitu dituela bere zerbitzuak.

Hala ere, ez da nahitaezko esleipenik egingo hezitzaileen kategoría batean lanean dagoen bitartean.

Irakasleen eta hezitzaileen zerrendetan egonez gero, espezifikotasunak:

Irakasleen eta hezitzaileen zerrendetako lan-egoera desberdina izan daiteke. Era berean, lan-egoera desberdina izan daiteke Hezkuntza Bereziko kategoría bakoitzaren barruan.

Eskaintzan irakasleen eta hezitzaileen plazak tartekatuko dira. Hala ere, Ordezkaguneren esleipen bakoitzean, hautagaiari plaza bakarra esleitu ahal izango zaio.

Balizko kasuistika:

1) Hautagaiari hezitzaile plaza bat esleitu bazaio:

Hezitzaile plaza baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, Hezkuntza Bereziko kategoría horretan lanean ari bada), Ordezkaguneren borondatez parte hartu ahal izango du irakasle gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez zaio nahitaezko esleipenik egingo hezitzaileen kategoría batean lanean dagoen bitartean.

Hezitzaile gisa lanean ari dela, hautagaiari irakasle-plaza bat esleitzen bazaio, esleipena egin eta hurrengo egunean irakasle-plazara joan beharko du, eta ordura arte lan egiten zuen ikastetxeari jakinarazi beharko dio amaitu dituela bere zerbitzuak.

Irakasle moduan lan egiteko indarrean dagoen hezitzaile kontratu bati uko egiten dionak ezin izango du parte hartu Ordezkaguneari kategoría horretako eskaintzetan ikasturtea amaitu arte.

2) Hautagaiari irakasle-plaza bat esleitu bazaio:

Irakasle-plaza baten esleipenduna izan bada (eta, ondorioz, irakasle-lanetan ari bada), Ordezkaguneren parte hartu ahal izango du, borondatez, hezitzaile gisa plaza bat lortzeko. Hala ere, ez zaio nahitaezko esleipenik egingo irakasle bezala lanean dagoen bitartean.

Hezitzaile moduan lan egiteko indarrean dagoen irakasle kontratu bati uko egiten dionak irakasleen ordezkoen araudian jasotzen den ondorioa izango du.

2.Funtzionamendu orokorraren salbuespena.

2.1. Hutsik dagoen lanpostu hutsa.

Ikasturtean zehar lanpostu huts bat bitarteko kontratu bidez bete behar denean, SMS bidez jakinaraziko zaie ordezkapen kontratua dutenei, ekoizpen arrazoiengatik kontratua dutenei, bakante partziala duten langileei (lanpostu hutsa osoa denean), lanean ez daudeneta babestutako egoeran dauden ordezkogai guztiei Ordezkagunean eskainiko dela. Behin Ordezkaguneaneskeinita, eskaera egiten duten guztien artean puntuazioari jarraituz esleituko da.

Sailarekin beste lan-kontratu mota bat indarrean izanez gero, hari uko egin ahal izango zaio eta eskaintzen zaion lanpostu huts baterako bitarteko kontratua aukeratu ahal izango da. Indarrean dagoen kontratu bati uko egiteak ez du ekarriko, kasu horretan, ondoriozik.

Era berean, lan-istripuagatik, lanbide-gaixotasunagatik, edo aldi baterako ezintasuneko egoeran; gurasotasun lizentzian; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; zaintzagatik eszedentzian; edo jardunaldi-etete iragankorrean (haurrak zaintzeko) edo haurdunaldiaren seigarren hilabetean dauden hautagaiak esleitutako lanpostua gordetzen zaie, babestutako egoeran dauden denbora birbarematzen zaie eta behin babestutako egoera eragin duen arrazoia desagertu denean, esleitutako kontratua indarrean sartuko.

2.2 Ikasturteko lehen Ordezkagunea

Ikasturteko lehen Ordezkaguneko esleipenean babestutako egoeran dauden ordezkagaiek parte hartzeko aukera izango dute. Kasu hauetan, esleitutako lanpostua gordetzen zaie, babestutako egoeran dauden denbora birbarematzen zaie eta behin babestutako egoera eragin duen arrazoia desagertu denean, esleitutako kontratua indarrean sartuko da.

2.3. Lanerako prest lehentasunarekin.

Ordezkaguneko zein esleipenetako lanpostuen banaketan administrazioak egindako akatsak erreparatzeko helburuz, kaltetutako ordezkogaiak zerrendan lehenengo postuan jarriko da eta hautagaiak aukeratutako lanaldia eta lurraldeko hurrengo kontratazioei begira lehentasuna izango du galdutako kontratuaren izaera berdineko lanpostu baten esleipenduna izan arte. Era berean, administrazioari egotzi dakizkiokeen akatsengatik lan egindako eguna ordainduko zaio. Administrazioaren akatsa bada, izaera bereko kontratu berri bat lortu bitartean esleitutako lanpostuari dagokion puntuazioa emango zaio eta egunak ordainduko zaizkio. Horretarako beharrezkoa izango da:

- Erreklamazioa jartzea administrazioaren akatsa izan dela justifikatuz.
- Ordezkagunean parte hartzea izaera bereko kontratua lortu bitartean.

Administrazioaren erruz norbait ordezkapen bat egiteko deitua bada eta titularra ere laneratu bada, ordezkoak egun hori kobratzeko eta puntuatzeko eskubidea izango du.

2.4 Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta 10 eskola-egun igaro aurretik lanpostu bera ordezkatzeko beharra sortzen bada ikasturte berean, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko. Kasu horietan, ordezkapena, lehenik eta behin, ordezkapen hori egiten aritu den hautagaiari eskainiko zaio lan-egiteko moduan badago, eta interesatzen ez bazaio, Ordezkagunen eskainiko da ordezkapena.



2.5 Pertsona batek lanaldi osoko ordezkapen bat betetzen badu eta plaza horren titularra lanaldi murriztuarekin itzultzen bada, ordezkoak lanpostu horretan jarraitzeko eskubidea izango du lanaldi murriztuarekin. Kontrako kasuetan, lanaldi murriztuko ordezkapen bat betetzen badu eta, edozein arrazoi dela medio, lanaldi osoko araubide bat behar badu, ordezkapen partziala egiten zuen pertsonak jardun osoa betetzeko eskubidea izango du, nahiz eta puntuaziorik onena ez izan.

2.6 Jardunak osatzeko eskubidea.

Ikastetxean jardun erdiko lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua daukan langilerik balego eta ikastetxean edo lan-zentroan beharrak handituko balira, langile horrek eskubidea izango du bere jarduna osatzeko. Hala, jardun erdiko lanpostu hutsa betetzeko bitarteko kontratu hori jardun osokoa bihurtuko litzateke baldin eta sortu berri den beharra egiturazkoa dela egiaztatzen bada.

Egoera horretan dagoen langile bat baina gehiago egongo balitz ikastetxean, lanaldia nori luzatuko zaion irizpide hauen arabera erabakiko da:

- Zentroko antzintasuna
- Saileko antzintasuna

2.7 Ordezkapen zein bitarteko kontratuei uko egitea.

Pertsona batek lanaldi partzialeko edo osoko lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratua badu, edo ordezkapen kontratua badu, borondatez uko egin ahal izango dio kontratuari, Ikasturte hasierako esleipenen parte hartzeko.

Uko egiteak idatziz aurkeztu beharko dira, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenak ezarritako epean. Uko egite horiek dagokion ikasturteko abuztuaren 31n izango dituzte ondorioak.

2.8. Haurreskolak partzuergoko kontratu bat egiteko Hezkuntza bereziko kontratu bati uko egiten diona

Haurreskolak partzuergoko beharrizan bati erantzuteko edo indarrean dagoen kontratu bati uko egiten dionak Ordezlaguneako kategoria horretakoaldi baterako premietarako eskaintzarako "ez lanerako prest" egoeran jarri beharko da. Egoera hori ikasturtea amaitu arte luzatuko da.

Hezitzaile gisa lanean ari dela, hautagaiari Haurreskolak Partzuergoko plaza bat esleitzen bazaio, ordura arte lan egiten zuen zentroari jakinarazi beharko dio bere zerbitzuak amaitu dituela.

2.9. Beste administrazio publiko bateko eskaintza onartuz gero.

Ikasturtean zehar beste administrazio publiko bateko eskaintza onartuz gero ere indarrean dagoen lan kontratuari uko egiten dionak Ordezlaguneako kategoria horretakoaldi baterako premietarako eskaintzarako "penalizazio" egoeran jarri beharko da. Salbuespen egoera hori ikasturtea amaitu arte luzatuko da.

Egoera hori lortu ahal izateko, egiaztatuta eduki beharko da, gutxienez, urte bat HPBetan lan egin izana Saileko ikastetxe publikoetan-bestela urtebeteko penalizazioa izango luke.

Rebekas
STAVIS

UST
Zerbitzu Publikoak

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
SERVICIO PÚBLICO



Irakaskuntza

2.10. Telefono bidezko ordezkapenak salbuespenezko eta premiazko kasuetan baino ez dira eskainiko, baldin eta behar bezala justifikatzen bada ordezkapena kontratua hasi aurreko laneguneko 12:30ak baino beranduago gertatu dela, eta ordezkapena ezinbestekotzat jotzen bada eta, gainera, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Hezkuntza laguntzako espezialistaren ordezkapenak gela egonkorretan.
- Hezkuntza laguntzako espezialisten ordezkapenak Hezkuntza Bereziko berriazko ikastetxeetan, zein ospitaleko, etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutikohezigarriako lurralde zentroetako ordezkapenak.
- Hezkuntza laguntzako espezialista ordezkatzeari, ikastetxe osoan hezkuntza laguntzako espezialista bakarra denean.
- Nahitaezkoak diren plazak esleitu ez direnean. Betiere, lan egun bat baino gehiagotan lanpostu hori bete ez bada.

Hala ere, ordezkapen horiek egiaztatutako iraupen luzea izango dutela aurreikusten bada, ez dira telefonoz eskainiko, hurrengo Ordeztagunean baizik, era horretako ordezkapenak egiteko hautagaien aukera-berdintasuna bermatzeko.

Kasu larri horiei erantzuteko telefono-deiak Ordeztaguneraren esleipenaren ondoren egingo dira, hurrengo eguneko 10:00ak arte.

Telefonoz egindako eskaintza horiek onartzea borondatezkoa izango da.

Nolanahi ere, premiazko dei horietarako zehaztutako kasuetan egiaztatzen bada kolektibo horren eguneroko ordezkapenen % 30 telefono-deien bidez eskaintzen direla, identifikatutako kasuak berrikusiko dira, hautagaiei egunero eskaintzen diren plazak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko, eta hori Ordeztagunea sistemaren bidez bermatzen da.

Ordeztagoia babestutako egoeran dagoen denbora barematzeko prozedura

Ordeztagoia "Babestutako egoeran" dagoen bitartean ez zaio esleipenik egingo baina egoera horretan dagoen denborak barematu egingo du.

Zerrendetan barematzeko eskubidea sortzen duten babestutako egoerak egongo dira. Kasu hauetara biltzen direnei, "babestutako egoeran" dauden denbora berbarematu egingo zaie.

Zerrenda birbarematzeari dagokionez, zerbitzu-denbora gisa zenbatuko zaie aurreko ikasturteko irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean pertsona horren puntuazioa dagoen mailan dauden ordezkoei lortutako puntuen batezbestekoa. Honako maila hauek izango dituzte kontuan:

- 0tik 10 puntura
- 11tik 20 puntura
- 21etik 30 puntura
- 31tik 40 puntura
- 41etik 50 puntura

....

Baremoaren ondorioetarako zerbitzu-denboraren aitortpen horrek ez du eraginik izango «antzinatasuna» izeneko ordainsari-osagarrian, ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez baita benetako zerbitzurik ematen.

Hautagoia zerrenda batean baino gehiagotan agertzen bada, dagokion zerrendan daudenen artean dagokion batezbesteko puntu kopurua zenbatuko da.



Hautagaia irakasleen eta hezitzaileen zerrendetan badago, "Babestutako egoeran" dagoen denbora zein zerrendatan berbarematuko duen aukeratu beharko du.

"Babestutako egoeran" dagoen bitartean ez zaio esleipenik egingo baina egoera horretan dagoen denborak barematu egingo du.

Baremazio eskubidea sortzen duen egoera bukatutakoan langileak lan egoera aldatu beharko du eta "lanerako prest" edo "ez lanerako prest" egoerara itzuliko da hautagaia.

• **Babestutako egoera eragiten duten arrazoiak:**

- Norbere haurra hiru urte bete arte zaindu behar bada.

Norbere haurrak hiru urte bete arte zaindu behar duenaren egoeran daudenei zerbitzu-denbora horiek zenbatuko zaizkie aldi horretan ordaindutako jarduerarik egin ez badute. Seme edo alaba bakoitzeko behin bakarrik eskatu ahal izango da. Egiaztapen hori egiteko, lan-bizitzaren agiria aurkeztu beharko dute edo Hezkuntza Sailari kontsulta egiteko baimena eman beharko diote.

- Kargu publikoren bat izendatu edo hautatzeagatik lanera joatea eragozten dien nahitaezko eszedentzia deklaratzek dakarren kasuren batean dauden hautagaiak.

• Lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik, aldi baterako ezintasunean edo haurra izan dutelako aldi baterako ezintasuneko egoeran; gurasotasun lizentzian; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; edo haurdunaldiaren seigarren hilabetetik aurrera.

• Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senideak zaindu behar izanez gero, edo, elkarrekin biziz gero, maila urrunagokoak zaindu behar izanez gero, gutxienez 15 egunetan eta gehienez bi urtetan. Gaixotasunaren larritasuna ziurtagiri mediko baten bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da noiz gertatu den. Ikasturte bakoitzeko bi aldiz baino ezin izango da eskatu arrazoi eta pertsona bakoitzeko (gehienez bi urteko epea arrazoi eta pertsona bakoitzeko uko egite justifikatu hori alegatzen den lehen alditik aurrera zenbatuko da). Berriro deitzea eskatzen duenean, bi urteko epean edo lehenago, une horretara arte etete hori ematera eraman zuten gaixotasun larriak edo ospitaleratzeak iraun duela egiaztatu beharko du. Bateriaezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Egoera hori lan-bizitzaren bidez ere justifikatu beharko du.

- Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo seme-alabaren gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik uko egitea mugarik gabe justifikatuko da.

Gaixotasunaren larritasuna ziurtagiri mediko baten bidez egiaztatu beharko da, eta ziurtagiri horretan argi eta garbi adierazi beharko da noiz gertatu den.

Gaixoak ezkontidea, izatezko bikotekidea edo seme-alaba badira, horren amaiera jakinarazi beharko da, hau da, lan-eskaintzari uko egiteko arrazoa ospitaleko altarekin edo alta medikoarekin amaituko da.

Bateraezina izango da ordaindutako edozein jarduerarekin. Egoera hori lanbitzaren bidez ere justifikatu beharko du. Edozein unetan eskatu ahal izango dute lanerako prest egoeran jartzea. Ikasturte bakoitzean bi aldiz baino ezin izango da eskatu arrazoi eta pertsona bakoitzeko.

- Genero-indarkeriaren biktima izatearen ondoriozko arrazoiak. Baldintza hori egiaztatu egin beharko da.

- **Penalizatorik ez duten Ukoak justifikatzeko prozedura**

Penalizatorik ez duen uko egitearen arrazoia lizentzietan eta baimenetan jasotako inguruabar bat, lanpostua esleitu ondoren eta jabetza egin aurretik sortzen bada, eta hala izan dela behar bezala justifikatzen bada, ukoa onartuko da inongo ondoriorik gabe, hautagaia "ez lanerako prest" egoeran jarriko da eta lanpostua berriro ahalik eta azkarren eskainiko da.

Egoera hauetara atxikitzeko ordezkogaia "ez lanerako prest" egoeran jarri beharko da eta ondoren baimena edo lizentzia hartzeko eskubidea ematen dion arrazoiaren egiaztagiria bidali beharko du. Uko egiteak ez du ondoriorik izango baldin eta lizentzia edo baimena eragiten duen arrazoia 13:00ak baino beranduago izan bada.

Baztertzeko arrazoiak:

- Ikasturtean behin baino gehiagotan justifikatutako arrazoirik gabe nahitaezko esleipen bati uko egiten dioten hautagaiak penalizazio egoeran egongo dira kategorian horretako eskaintza guztietarako.

- Deialdia onartu ondoren ikastetxera joan behar duten lehen egunean agertzen ez diren izangaiak onartutako lanpostuaren kategorian penalizazio egoeran egongo dira,

- Kontratua indarrean duten eta kontratuari uko egiten dioten hautagaiak indarrean dagoen kontratuaren kategoriako zerrenda guztietan penalizazio egoeran geratuko dira. Lanaldi erdiko kontratua duten izangaiak, lanaldiaren herenera aldatzen badira, kontratu horri uko egin ahal izango diote.

- Barematzeko eskubidea sortzen duen babestutako egoeran egotea horretarako arrazoia bukatu denean.

- Gaitasun eza

Penalizazioaren ondorioak:

Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera lanpostu baten nahitaezko esleipen bati 2 aldiz uko egiteagatik, esleitutako lanpostuaz jabetu ez direlako, zerbitzuak emateari utzi diotelako edo bere borondatez uko egin diotelako edo barematzeko eskubidea sortzen duen egoera babestuan egoteagatik horretarako arrazoia bukatu denean aldi baterako penalizazio egoeran jarriko dira ordezkagunean. Aldi baterako penalizazioan



dauden hautagaiak ezin izango dute esleipenetan edo ordezkagunean parte hartu egoera hori hasi eta urtebetara arte.

Hautagaiak zerrendatik behin-betiko kanporatzeko arrazoiak

Hauek izango dira zerrendatik kanporatzeko arrazoiak:

- Diziplinako espediente baten bidez, lan hutsegite oso larria egiteagatik zigorra jaso izana edozein administrazio publikotan, baldin eta inpugnatuta ez badago.
- Epai irmo baten bidez espetxe zigorrarekin kondenatua izatea sexu askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituengatik.

Ordezko lan-legepeko hezitzaileen prestutasunagatik eta mugikortasunagatik konpentsazioa.

Hezkuntza Sailak, ordezkapen guztiak betetzeko konpromisoa kontuan hartuta, ikasturtean zehar honako baldintza hauek betetzen dituzten ordezkari langileen prestasuna lehenetsiko du:

- Ordezkapenagatik bitarteko lan-modalitatean lan egin izana.
- Ordezkagunearen esleipenetan ohikotasunez parte hartu izana. Betekizun hau betetzen ez dela ulertuko da baldin eta 50 egun balduneko epean egon bada ordezkagunean parte hartu gabe ordezkagunea martxan egon den bitartean justifikatutako arrazoirik gabe. Justifikatutako egoerak izango dira besteen artean gurasotasunari lotutako egoerak, ezintasunak, familiarren zaintza... etab.

Baldintza horiek betetzen dituzten langileek konpentsazio ekonomiko bat jasoko dute, baremo honen arabera:

165 eta 192 egun bitartean lan eginda:	6 egun
193 eta 220 egun bitartean lan eginda:	7 egun
221 eta 248 egun bitartean lan eginda:	8 egun
249 eta 275 egun bitartean lan eginda:	9 egun
276 eta 300 egun bitartean lan eginda:	10 egun

Eguneko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko soldata gordina hartuko da erreferentziazat, eta proportzionalki zenbatuko da, lan egindako denboraren eta lanaldi-modalitatearen arabera. Konpentsazio horretarako ez dira zenbatuko kalte-ordaina jaso duten lan egindako aldiak.

Kompentsazio horrek ez du Gizarte Segurantzaren alta ematea ekarriko, eta ez dira hautagaien zerrendetan zenbatuko. Ez dute oporrik sortuko, ezta aparteko ordainsariari dagokion ordainketarik ere.

Aldi baterako kontratua duten hezkuntzako lan-kontratudun langileek, ordezkapenagatik edo ekoizpen-gorabeherengatik, ikasturtean 165 zerbitzu-egun edo gehiago egin badituzte, puntu gehigarri bat lortuko dute hautagaien zerrendak birbarematzeko prozesuan.

Lan-legepeko irakasleak ordezkatzeko bitarteko lan-kontratua egiten zaien irakasleen lan-egunak zenbatzea:



Lan-legepeko irakasle bat ordezkatzeko ordezkapen laboral batean emandako zerbitzuak funtzionarioen udako ordainketarako hartuko dira kontuan.

Lan-legepeko hezitzaileek beren ohiko eginkizunak betetzen jarraitzeko gaitasunik ez dutela zehazteko jarduera-protokoloa

1. Legegintzako Errege Dekretuaren 52 a) artikulua arabera (Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena), kontratua objektiboki azkentzeko arrazioen artean, langileak lanpostuko betekizunak betetzeko beharrezkoak diren gaitasun eza izatea (enpresan lanean hasi baino lehenagokoa ala ondorengoa bada ere) dago. Lege horri jarraiki, aldi baterako lan-legepeko hezkuntza-langileen kasuan, jarduteko protokolo hau ezarri behar da, eta, nahitaez, dagokion espedientea bideratu beharko da, eta, hala badagokio, langileen ordezkaritza-organoaren txostena, adierazitako baldintzetan.

– Ikastetxeko zuzendaritzak eta H.P.B lan talde osoak uste badu pertsona batek ez dituela betetzen bere ohiko eginkizunak betetzeko behar diren gaitasunak, dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinaraziko dio. Lurralde-ordezkariek aginduko du beharrezkoak diren aurretiazko jarduketak egitea, eta, horien artean, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren osasun-arloaren txostena eta/edo Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena sartu ahal izango da, kasuaren arabera. Era berean, Langileak Kudeatzeko zuzendariak egokitzen dituen aurretiazko jarduketak egiteko agindu ahal izango du.

Aurretiazko jarduketan ondoren, ustez bere ohiko eginkizunak betetzen jarraitzeko gaitasunik ez badu, espedientea Langileak Kudeatzeko zuzendariari helaraziko zaio, eta hark prozedura bat abiaraziko du, ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan, Hezkuntzako Ikuskaritzako kide bat izendatuko du, instruitzeko, eta berariaz adieraziko ditu ondorioak. Ebazpena langileen ordezkaritza-organoei jakinaraziko zaie.

Espedientea ezin izango da inola ere oinarritu diziplinazko hutsegitez har daitezkeen egintzetan.

– Prozedura hasi ondoren, egoerak hala aholkatzen badu, instrukzio-egileak proposatu ahal izango du azken ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko egokitzen dituen behin-behineko neurriak hartzea.

Behin-behineko neurri egokiak, prozedura amaitu arte iraungo dutenak, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen arrazoitu bidez hartuko dira, eta eragindako pertsonari jakinaraziko zaizkio.

– Instruktoerek behar diren jarduketak egingo ditu prozedura ebazteko oinarri izango diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko, eta beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatuko ditu; besteak beste, egokitzen dituen badu, eragindako pertsonaren azterketa medikoa. Azterketa hori dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren osasun-arloaren bidez izapidetu beharko da.

Irakasgintza

Rebekeferma
Sra. Sra. Sra.

UST
Zerbitzu Publikoak

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Arestian deskribatutako jarduketak egin ondoren, instruktoreak txostena egingo du, eta eragindako pertsonari helaraziko dio. Hamar egun balioduneko epea emango dio alegazioak aurkezteko eta egokitzen jotzen dituen frogak egitea eskatzeko.

- Instrukzioa amaitu ondoren, instrukzio-egileak ebazpen-proposamena emango du. Proposamen horretan, egin beharreko frogen emaitza jasoko da, bai eta argi eta garbi desegokiak edo alferrekoak izan diren proposatutako frogak baztertu izana ere. Ebazpen proposamena langileen ordezkari-organoei jakinaraziko zaie, hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan dituzten.

Izapide hori egin ondoren, espediente osoa erakutsiko zaio eragindako pertsonari, ebazpen-proposamena barne, egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izan dituzan hamar egun balioduneko epean.

Aurreko izapideak egin ondoren, espediente osoa Langileak Kudeatzeko zuzendariari helaraziko zaio, prozedurari amaiera emango dion ebazpena eman dezan. Hala ere, prozeduraren bermeak zaintzeko beharrezkotzat jotzen bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak instruktoreari agindu ahal izango dio egoki irizitako eginbide osagarriak egin ditzala, eta, eginbide horiek egin ondoren, ebazpena emango du.

Prozedurak egiaztatzen badu eginkizun arruntak betetzen jarraitzeko ageriko eskumenik ez duela, ebazpen horrek indarrean dagoen kontratua azkenduko du eta eragindako pertsona behin betiko zerrendatik kanpo utziko du behin betiko izaerarekin. Bestela, egindako jarduketak largestea edo artxibatzea emango du ebazpenak. Nolanahi ere, ebazpenak berriaz adierazi beharko ditu hartutako behin-behineko neurriak. Era berean, langileen ordezkari-organoei ere jakinaraziko zaie ebazpena.

Prozedura hasteko ebazpena eman zenetik sei hilabete baino gehiago igaro badira prozedura amaitzeko ebazpena eman eta jakinarazi gabe, iraungita geratuko da, hargatik eragotzi gabe ebazteko gehieneko epea eteteko kausak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidea arautzen duen indarreko legerian jasotakoak. Horretarako, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du prozedura iraungi dela adierazteko eta jarduketak artxibatzeke agintzeko.

Eskumenik eza eta, ondorioz, kanporatzea berrikusi ahal izango dira, baldin eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren edo Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak, kasuaren arabera, hala proposatzen badu eta horiek ikusita, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenean berriaz xedatzen bada. Kasu horretan, txosten horietan zehaztutakoaren arabera, berrikuspen hori eragin duten inguruabarrak edo arrazoiak jasoko dira, baita haren indarraldia eta zerrendan berriro sartzeari ekar dezaketen arraipen- edo azterketa zirkunstantziak ere.

Hezkuntza Saila



CCOO



ELA

Rebeko Senz

STEILAS



net



LAB Irakasgintza

Rebeko Senz



DEPARTAMENTO DE EDUCACION

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION

GOBIERNO VASCO



Mesa Negociadora del Personal Laboral Docente y Educativo del Departamento de Educación

ACUERDO SOBRE EL CONVENIO COLECTIVO DEL PERSONAL LABORAL DOCENTE Y EDUCATIVO DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO

Lakua, 08 de mayo de 2026.

Los representantes reunidos en la Mesa Negociadora de hoy firman el presente acuerdo, que se incorpora como anexo al acta de la citada reunión.

Base del acuerdo:

Tras la publicación del nuevo Convenio Colectivo del Personal Laboral Docente y Educativo, se han detectado problemas en la redacción del Anexo III que requieren de una serie de modificaciones que clarifiquen algunos puntos oscuros, corrijan indefiniciones y mejoren la gestión de Ordezkgagunea para que sirva para ofrecer un servicio de sustitución que responda con calidad y eficacia a las demandas del sistema educativo público.

Por tanto, SE ACUERDA la modificación del anexo III con la siguiente redacción:

El presente Anexo entrará en vigor el 1 de septiembre de 2026 y será el III Preacuerdo del Convenio Colectivo suscrito el 19 de diciembre de 2024. Sustituye al anexo. Las Delegaciones Territoriales de Educación, en sus respectivos ámbitos territoriales, gestionan las listas de candidatos y candidatas a sustituciones para ir cubriendo durante el curso escolar las necesidades temporales de personal laboral educativo de educación especial en centros públicos.

El planteamiento general de esta normativa atiende a los siguientes criterios:

- Ofrecer un servicio de sustitución que responda con calidad y eficacia a las demandas del sistema educativo público.
- Configuración de listas únicas de candidatos/as a sustituciones por categorías, integradas por los colectivos mencionados en el apartado de ámbito personal.
- Establecer el orden de prelación de los candidatos y candidatas a sustituciones.
- Regular los procedimientos específicos de candidatos y candidatas a sustituciones.

